

LUIS JAUREGI 'JAUTARKOL'-EN *BIOZKADAK* TESTU AZTERKETA

Erreterria, 1996-VI-19

Juan Mari Lekuona

Badakit zerbait zabalagoa eta sakonagoa merezi zuela Luis Jauregi 'Jautarkol'-en olerkigintzak, batez ere lizardianismo-aurreko euskal poesiaren berezitasunak markatu nahi badira, eta garai haretako euskal poesian lehen mailan zegoen olerkari erreteriarrek orduan zuen protagonismoa zehaztu nahi bada.

Egia da, bestalde, Jautarkolen mendemugan arriskuan egon garela ikas-kuntzen mailan olerkariari ezer berririk ez eskaintzeko, tamalgarria izan zitekeelarik era honetako hutsegite bat. Tamalgarria eta ulertu-ezina ere bai, gaur egun dauzkagun medioak eta ahaleginak ikusita.

Horregatik, gutxi bada ere, Euskaltzaindiko Literatura batzordeak gogoratu nahi ditu eta balioztatu ere bai, Luis Jauregiri buruzko zenbait xehetasun nagusi, helburu hauekin: mendemugak duintasun bat eduki dezala eta kontzientzia bat, ikaskuntzen aldetik; gero, hasiera eman Jautarkoli buruzko ikerketa monografiko luzeago bati, euskal poesiaren bilakabidea hobeto ezagutua izan dadin mende honetako hogeigarren hamarkadan; eta Luis Jauregiren nortasuna eta lana bistarazi, batez ere bere herritarren artean.

1. POESI GENEROAK

Biozkadak liburua irakurtzen hasiz gero, iadanik lehenengo olerkietatik hasten zara ikusten nolako berezitasuna duten agertzen poesia idilikoek, Verdaguer-en *Idilis y Cants Mistichs* liburuaren harikoez. Egia esan, gauza bera nabaritu nuen lehendik ere, Manuel Lekuonaren *Gerrateko nere hamabi kantak* poemategia aztertu nuenean; baina ez nuen uste hala izango zenik, edota hainbeste, Luis Jauregiren *Biozkadak* liburuan. Garaiko sentimolde bat zen nonbait.

Argigarri izango delakoan, sailkatu ditut Jautarkolek erabiltzen dituen generoak. Eta alboan jarriz zein izan ziren sarituak, atera dezakegu datu jakin-garririk, Luis Jauregiren poesia ezagutzen hasteko. Hona gaien sailkapen-emaitzak:

1. Kondaira idilikoak

1.1. Hunkigarria: ‘Amonatxoa eskean’ (B 13); ‘Nekazari gaixoa’, (B 15); ‘Maitasun indarra’ (B 19); ‘Poz-agurra’ (B 21); ‘Itsasaldean’ (B 36); ‘Umezurtz’ (B 49); ‘Guda ondoren’ (B 76); ‘Alargunaren negarrak’ (B 82).

1.2. Mistikoak: ‘Umetxo batek bere zeruko Amari’ (B 10); ‘Ostiral Santu’ (B 12); ‘Artzaitxoa’ (B 38); ‘Aurtxo batek Mariari’ (B 42); ‘Antzekia’ (B 61); ‘Nere aurtxoa’ (B 63); ‘Aingerutxoak’ (B 92).

1.3. Moralizanteak: ‘Aitonaren otoitza’ (B 4); ‘Lotsagabea’ (B 8); ‘Malentxu’ (B 40); ‘Biozkadak’ (B 80); ‘Loreti’ (B 86); ‘Iziartxori’ (B 90).

2. Alegoria idilikoak

2.1. Emakumea: ‘Zergatik’ (B 22); ‘Artzai-neska’ (B 51), Zeruko Argiak saritua, 1927.

2.2. Mendia: ‘Bizitz menditarra’ (B 23); ‘Aitonak bere illobatxoari’ (B 28).

2.3. Bizitza eta heriotza: ‘Bizitza eta heriotza’ (B 44), Euskal-Esnaleak saritua, 1923; ‘Illeta-eresia’ (B 88), Euskal-Esnaleak saritua, 1926.

2.4. Udaberria: ‘Udaberria’ (B 13).

2.5. Eskalea: ‘Eskalea’ (B 95).

3. Odak

3.1. Kulturalak: ‘Bertso gaixoak’ (B 1); ‘Nere eresia’ (B 5); ‘Bai erri gaixoa’ (B 17); ‘Gure erria’ (B 18); ‘Eutsi esiari’ (B 53); ‘Aizkorriren oñetan’ (B 57), Euskal-Esnaleak saritua, 1927; ‘Aralar’ (B 68), Euskal-Esnaleak saritua, 1927; ‘Gustavo Adolfo Becquer-i’ (B 74).

3.2. Erliziozkoak: ‘Jesusen Biotzari’ (B 31) ‘Asis’ko eskalea’ (B 33); ‘Spes unica’ (B 55); ‘Atozkit’ (B 65); ‘Mater dolorosa’ (B 99); ‘Jaun-artu aurean’ (B 103).

3.3. Moralizanteak: ‘Nere lagun-zar bateri’ (B 72); ‘Amatxo-bati’ (B 91); ‘Gazte askorentzat’ (B 102); ‘Alai ta pakean’ (B 105).

4. Gorazarreak

4.1. ‘Bergara’ko Jesus gurutzetuari’, Euskal-Esnaleak saritua, 1926.

4.2. ‘Asis’tar Prantzisko Aitari’ (B 104).

4.3. ‘Errenderi, nere jaioterriari’ (B 46).

Biozkadak liburuko generoak sailkatu ondoren, horrelako taxonomi lanak dituen arriskuak aitortuz ere, zenbait jakingarri aipa daiteke azterketa honetatik. Poema idilikoak ditugu erdiak baino gehiago, % 58, nahiz eta idiliko horiek kondaira estilizatu bati atxekiak izan, edota alegoria baten eittea ekarri. Gero odak ditugu, ehuneko hogeitamasei, % 36. Eta azkenik gorazarreak, ehuneko sei, % 6, herrikoienak, kantagarriak direlarik hauetako lehenengo biak.

Kontagai bat dago kondaira idilikoetan: kontagai estilizatuak, pertsonai xumeen egoera suposatzen da, lazgarria gehienetan, eta olerkariak maitasun xumeko bezain biziko sentipenak jalgitzen ditu. Pertsonaiak, ekintza nahiz egoerak eta sentipenen kudeaketak oso bereziak eta eraginkorrak ditu baina ahogozo jakineko olerki piezak dira. Eta kondairazko idilioak gehiago izanik ere, alegorikoak dira onarpenik handiena jaso dutenak. Saritueta hiru alegoria idilikoak dira, bi oden sailekoak eta bat gorazarrekoa. Honek esan nahi digu ez bakarrik zein zen aldizkari saritzaileen gustamoldea poesi gaietan, baizik eta non egin zuen lanik interesgarriena Luis Jauregik garaikideentzat. Eta oden presentzia nahiko zabalak ematen digu aditzera, Fray Luis de León, G. A. Becquer eta Lizardiren haritik edo, hemen distiratzten duela Jautarkolek geroko hurbil batean eragina izango duen moldea euskal olerkigintzan.

2. ESTROFAGINTZA OHARGARRIA

Lehen Lizardiri, Satarkari, S. Onaindiari eta Gandiagari eta abarri eginiko azterketetan eduki nuen sentsazio bera izan dut Jautarkolekin ere. Oraindik estrofa egitura metrikoa lantzen dute denok, baina asko urritzen dute errimaren edo puntuaren presentzia, askotan bitaraino ere gutxitzen dutela estrofa luzeetan. Eta eraskotako modulu metrikoak asmatzen edo dituzte eta erabiltzen, poema bakoitzerako ia eredu berezi bat eratuz eta landuz.

Ezertan bada eredu Luis Jauregiren poemagintza, estrofa berriak sortzen da ezbairik gabe. Berrogeita hamar poema ditu *Biozkadak* liburuan eta 31 modulu metriko desberdin erabiltzen ditu. Ez berak sortuak danak. Baina, sentiberatasun amankomun batean, Jauregik usmo berezia erakusten du, eredu jakinak aukeratzekoan, eta zer esanik ez hauek berak sortuak eta sartuak badira.

Estrofa gehienek bi errima besterik ez dituzte, lauко bertso-lerrokoak direlarik asko eta asko. Laukoak, ez gutxi, usariozkoak dira, kantutegietan agertzen direnak; baina, dena dela, motxak, bi errimakoak bakarrik: lauко txikia 3 eredu; lauко nagusia 12 eredu; lauко ertaina 1 eredu; lauко berdina 3 eredu; lauко txiki zaharra 4 eredu; lauко txiki luatua 2 eredu; lauко xeheak 2 eredu.

Aipagarriena agian, bost silabako hemistikokoak era desberdinetara konbinatuz sortzen dituen eredu ugariak bezain erritmo poetiko berrikoak: 16 eredu sortu edo ditu. Esan daiteke, beraz, bost silabako hemistikoa jotatzea dela Jautarkolen ezaugarrietako bat metrikagintzan, Lizardik, Onaindiak eta Gandiagak

7/6 silabako hemistikioak erabiltzera gehiago makurtzen direlarik. Ez hala, ordea, Luis Jauregiren joera, honek molde nagusiko silaba-errenkora jotzen duelarik.

Badu beste ezaugarri bat ere ohargarri dena: puntuak besarkatzea eta gurutzatzea. Ez ditu eredu asko, lau baizik. Hona adibideak:

‘Udazkeneko aize zakarrak	10A
zugaitz-ostoak, ori ta igarrak	10A
lurreratzen ditunean,	8b
naigabe baten arantz zorrotza,	10C
beazunezko tanto mingotza	10C
nabaitzen det biotzean’ (B 1)	8b

Errimak parekatuz eta besarkatuz eraikitako estrofa da hori.

‘Ama biotz-kementsu	7-
naigabetsua	5a
zutik, negarrez dago	7-
gurutz-alboan...	5b
Etsaiak deadarka	7-
bere ondoan...	5b
Ilun ta ikaraz dar-dar	7-
dago mundua’ (B 99)	5a

Errimak gurutzatuz eta besarkatuz eginiko estrofa dugu hori.

‘Maitasun-eskean, eskale antzera,	12A
gau t’egunez dabil atetik-atera	12A
Jesus maitalea,	6b
maitasun-zalea,	6b
gure zoriona	6c
bestarik nai ez dun, gure Aita ona! (B 65)	12C

Puntuak besarkatuz ehoriko bertsoa hori.

‘Kalbarioko menditik bera	10-
jende taldea	5a
ixil-ixillik dioa...	8b
Goian negarrez lau emakume	10-
ta gurutzea...	5a
Bertan illotzik jainkoa’ (B 55)	8b

Mota jakineko puntuak gurutzatuz egina da estrofa hau.

Azkenik, eta bestalde, kantutegi ohikoari bagagozkio, seiko txiki bat, bi zortziko txiki eta hamarreko nagusi bat aurkitzen ditugu *Biozkadak* poemate-

gian. Ehuneko zortzia eta, beraz, ez dirudi asko denik kantutegiaren amorez ezarriak izateko.

Bistan dena da, nahiz eta usarioa kontuan hartuz sortutako ereduak erabili, kantutegi zaharretatik eta bertsoaritzatik nahiko urruti dabilela Jautarkol. Xehetasun hauetan nabari da Jautarkol urrutitxo dagoela usariozko bertsoetatik. Malgutasun handiko ereduak ditu, astunkeriarikgabeak. Arrazoitua dauka modulu metriko bakoitza, kopuruak eta eraikuntza landuz: silaben kopurua neuritzen du, bertso-lerroen konbinaketak egituratzen eta josten, errimen kokapena aldatzen, errimariak gabeko hemistikioak tartekatzen, hitz batean, modulu anitz eta desberdinak asmatuz. Helburu estetiko jakin baten bila dabil: diskurtsu eraskotakoa, malgutasun handikoa, batez ere kondaira idilikoetan, nortasun metrikoa emanez poema bakoitzari, barietatea eta ugaritasuna landuz.

Eta honi eransten bazaio estrofa laburrak lantzen dituela, lauhoak askotan; hemistikio desberdinak nahasteko joera oso maitea duela, eta joko ugariak direla era batera edo bestera ezarriak... Esan dezakegu lan aipagarria dela Jautarkolek eskaintzen diguna, eta eredu bat gertatzen dela haren langintza euskal olerkigintzaren estrofismoan.

3. ESTROFAK, ERRAZENETIK ZAILERENA

Sailkapen zehatza egin dezagun:

1. Lauko txikia (B 63), (B 103), (B 95). Hiru eredu.
2. Lauko nagusia
 - a) Idazkera ohikoan: (B 4), (B 8), (B 12), (B 14), (B 19), (B 21), (B 31), (B 82), (B 88), (B 93), (B 102). Hamaika eredu.
 - b) Idazkera ez-ohikoan: (B 23). Eredu bat.
3. Bost silabako hemistikioen jokoak
 - a) 10- / 3a / 10- / 3a (B 28). Eredu bat
 10- / 5a / 10- / 5a (B 36). Eredu bat
 10- / 4a / 10- / 4a (B 80). Eredu bat
 10- / 6a / 10 / 6a (B 17); (B 72). Bi eredu
 - b) 5- / 5- / 5- / 4a / 5- / 5- / 5- / 4a (B 5). Eredu bat
 15- / 8a / 15- / 8a (B 33), (B 53), (B 57), (B 68), (B 74), (B 90).
 Sei eredu.
 15- / 10A / 15- / 10A (B 4). Eredu bat
 15- / 13A / 15- / 13A (B 91). Eredu bat
 - c) 10- / 10- / 3a / 10- / 10- / 3a (B 22). Eredu bat
 - d) 10- / 5a / 5b / 10- / 5a / 5b (B 55). Eredu bat

4. Lauko klasikoak elkarturik

a) 8- / 7a / 8- / 7a / 8- / 7b / 8- / 7b (B 15). Eredu bat

5. Lauko berdinak

a) 6- / 6a / 6- / 6a (B 93). Sei silabez eta bi puntuz. Eredu bat

b) 9A / 9A / 9B / 9B (B 38). Bederatzi silabez eta bi puntuz. Eredu bat

c) 13A / 13A / 13B / 13B (B 86). Hamahiru silabez eta bi puntuz. Eredu bat

6. Lauko txiki zaharra

a) 7- / 5a / 7- / 5a (B 49), (B 86). Bi eredu

b) 7- / 5a / 7- / 5a (B 13). Eredu bat

c) 7- / 5a / 7- / 5a (B 42). Eredu bat

7. Lauko txiki luzatua

a) 14- / 6a / 14- / 6a (B 61). Eredu bat

b) 14- / 5a / 14- / 5a (B 44). Eredu bat

8. Lauko nahasia

a) 12- / 4a / 12- / 4a (B 76). Eredu bat

b) 16- / 4a / 16- / 4a (B 40). Eredu bat

9. Bosteko berdina

a) 9A / 9A / 9A / 9A / 9A. 9 silabez eta 5 puntuz. (B 106). Eredu bat

10. Eredu desberdina puntu beraz

a) 13A / 13A / 8a (B 10). Eredu bat

11. Eredu desberdinak puntuak txandaturaz

a) 10A / 10A / 8b / 10C / 10C / 8b (B 13). Eredu bat

b) 12A / 12A / 6b / 6b / 6c / 12C (B 65). Eredu bat

c) 7- / 5a / 7- / 5b / 7- / 5b / 7- / 5a (B 99). Eredu bat

12. Seiko txikia

a) 7- / 6a / 7- / 6a / 7- / 6a (B 9), (B 104). Bi eredu

13. Zortziko txikia (B 9), (B 80). Bi eredu14. Hamarreko nagusia (B 31). Eredu bat

Sailkapen zehatz honek bide ematen digu Jautarkolen lanaz geure iritziak finka ditzagun. Asko landu zuen diskurtsu poetikoaren malgutasuna eta aberastasuna. Tradizioa du gogoan, baina oso aldendurik dabil eskuarki puntu ugari-ko estrofetatik. Badirudi dena kondaira eta alegoria idilikoen zerbitzuan asaturik dagoela, nahiz eta sarituenak gertatzen diren odak eta alegoriak. Badirudi lore-jokoetako zenbaitzuren poemagintza baztertzen dela, eta onartzen beste batzurena. Lizardianismo-aurreko garaian gaudela esan behar: diskurtsu poetiko askeago batean.

4. EREDU IDILIKOEN AURKEZPEN LABURRA

Poema idilikoak, kanpoko egiturari bagagozkio, metrika-molde xumeak ditu, bertso-lerro motxak, eta elkarrizketa ez dute beharrezko, eta luze-zabalez ez dira garapen handikoak. Eta mamiz, berriz, galetan eta ezaugarrietan, gogoko dute ziutatearen eta landako baserriaren arteko oposaketa, baserriko paisaiaren idealizazioa, historiari ihes egitea babes baketsu batean, eta, batez ere, sensualitate xumea, maitasun biguna.

Hau hala dela ikusteko, hiru eredu aurkeztuko ditugu. Bakoitzak emango digu argibiderik aski, Jautarkolen idiliogintza, hain berea, nolakotu dezagun. Aurkeztutako poema bakoitzaren kontagaia eta baliabide poetiko zenbait aipatuko ditugu.

4.1. Nekazari gaxoa: hunkigarrien sailekoa.

'Lurra goldetzen ari da
nekazari gaxoa,
ta izerdiz ta negar-malkoz
lurra bustitzen doa:
illun-illun arpegia
illunago biotza
barruan sartuta dauka
nunbait ezten zorrotza.

Aida Gorri! Aida Motxa!
dio malko tartean:
ta goruntz begiak jasota,
otoitz-dagi noizean;
geldi-geldik baserrira
begira dago bestetan...
Ai! Bere naigabe miña
zorrotza da benetan...

.....

Bere soroan erne da
 erein zuan artoa,
 baño inun ikusten ez det
 nekazari gaxoa.
 Baserria ixillik dago,
 larrez josirik lurra,
 ta katea apurtu nairik
 zaunga-zaunga zakurra.

Bertako amonatxoak
 esan dit gaur goizean:
 ‘Seme zarrena il zioten
 moroak gerratean...
 Geroztik ez zuen onik
 ez etxe t’ez lanean...
 Bera ere, ai!, naigabez...
 il zaigu azkenean’. (B 15-16)

Iruzkina laburra: Kondairatxoa hiru urratsetan emanik dago: Lehenik poetak triste ikusten du protagonista, artoa ereiteko lurra goldetzen. Bigarrenik, poeta handik igarotzen da artoa jaiotakoan: nekazaria falta eta egoera negargarria baserrian: non ote nekazaria? Hirugarrenik errematea: moroek semea hil, eta baita hil zen ere nekazaria.

Lehen laukitxoan deskripzioak agintzen du: ereiteko une latza, tristura agertzeko xehetasunak, nahigabe min zorrotza islatuz. Artoa jaiotakoan ere berdin, nahiz xehetasun deskriptiboak gutxiagotu. Eta azkenik azkartasuna agertzen du errematean. Baliabide xheagoetan, aipa daitezke, barruko eta kanpoko planoak, ‘illun-illun arpetia / illunago biotza’ (B 15); gero bi oihu-esaldi, ai! interjekzioa erabiliz. Afektibitate hizkera ere oso baliagarri gertatzen zaio Jautarkoli, bai hemen eta bai beste edozein poemetan: Gaxoa, bustiduraz, hiru aldiz aipatzen digu hemen; amonatxoa, ttipigarri eta guzti, ildo beretik doa. Izenlagunak ere egokiak eta indartsuak... Dena kondaira idiliko hunkigarri baten zerbitzuan.

4.2. Ostiral santu: mistikoen sailekoa.

‘Egan dijoaz txio ta txio
 enarak mendi aldera,
 ekaitz aurretik erori oi-dan
 odei beltzaren antzera...

Jaunak deadar aundi bat dagi
 ta makurtu du burua...
 Deadar-dagi lurrak, ta lotsaz
 itzali da euzki-sua...

Ixil-ixilik menditik bera
 enarak egan dijoaz,
 arantza bana daramatela
 bakotzak bere mokoaz...

Ixil-ixilik Gurutz-albotik
 datoz biotz maitaleak...
 Jaunai kenduta, zenbat arantza
 dakarzkiten, ai!, gordeak!

Nork euki leizken beren egoak!
 Nork izan beren biotza,
 beren ezti az eztitutzeko
 Jaunan naigabe mingotza!' (B 12)

Iruzkin laburra: Hemengo kontakizuna herri-ipu in ezagun baten gaia da. Eta Jautarkolek leiendaren aplikazio mistikoa egiten du: Jaunari arantzak kendu, 'eztitu Jaunaren mingotza', esan nahi baita, Jaunari penak arintzea, 'errepardatzea', garai haietan ekintza honi zitzaion sentiberatasuna agertuz.

Baliabide poetikoetan zenbait figura ohiko aipa daiteke argigarri. Deskripzio xeheak eta egokiak; konparaketak: enarak mendi aldera, hodei beltzaren antzera; pertsonatzeak, 'deadar lurak eta lotsaz itzali euzki-sua'; anaforak, 'ixil-ixillik' hitz gemintuaz, edo 'nork' errepikaren bidez sugerituriko desirak; eta gero desira beraz aipaturiko oihu-esaldiak... Paralerrismo estilistikoa, ixil-ixilik enarak' eta 'ixil-ixilik biotz maitaleak'. Genero idilikoak berekin dituen eskakizunen araberrako idaztabesak.

4.3. Biozkadak: moralizanteen sailekoa.

'Lorategian sartu nintzan bein
 udaberri goiz batean,
 ta arrosa gorri mardul-mardul bat
 zegoen lore tartean...
 Intza-tantozko koroï ederra
 dirdizka buru-gaiñean...
 Arro ta tente, zoragarria,
 erregin baten antzean.

Erregin baten antzean zagon
 arrosa-mardul arrosa,
 nere beatzez ebaki nuan
 ta il zan negarrez gaxoa.
 Usaitu nuan asetu-arte
 bere usaiaren gozoa,
 ta zubigoitik ibai-gañera
 bota nuan loretzoa.

.....

Etxe-aldera pozez nijoan
 bitartean,
 odol-iturri bero bat neukan
 beatzean...
 Orra, or bizitz-lorategiko
 baratzean
 gerta oi-dana, poz-atsegiñen
 ondorean;
 oñaze-iturri ta arantz zorrotzak
 biotzean' (B 80-81)

Iruzkin laburra: Kondairatxo bat dago ardatzean: arrosarekin poetari ger-tatutakoa. Pertsonaiak, olerkaria eta arrosa: lehen denboran, poetak usaitu, moztu, zubitik bota. Bigarren unean, arrosaren ziztakoaz, odola poeta beha-tzean. Eta hirugarren unean, ikasbidea: 'poz-atsegiñen ondoren, oñaze-iturri eta arantz zorrotzak biotzean'.

Deskripzioak maisuki eginak ditu; hauetan, konparaketa gorai-palea, 'arro-sa...erregin baten antzean', bihurkia eginez, 'erregin baten antzean zego-n'. Ai-pagarri, baita ere, erritmo-aldaketa azken bertso-lerroetan, eredu laburretara joz. Horretaz gainera, nabarmentzen da hizkera afektiboaren adierazgarri diren ttipigarriak (gaxoa, loretxoa) eta abar. Bereziko nuke beatzean/biotzean hots geminatuen adiera paralelroa, hitz jokoak barruko eta kanpoko planuetara ga-ramatzala. Eta 'ez dago arrosarik arantzarik gabe' herri-esaldiari interpretazio moralizantea eman izana: poz--atseginen ondoren, arantza zorrotzak bihotzean.

5. ODAK ETA GORAZARREEN HARIKOAK

Kondairarik gabeko gai solteak dira, kanturako izan ohi diren poemen ha-rira landuak, gai jakin baten alderdi nagusiak aipatzen direla, alderdi erretoriko-poetikokoak nabaritzen direlarik gaiaren tratamentuan.

Orain beste eredu bat aurkeztuko dizuet, iruzkin laburrak erantsiz, argigarri izango zaizuelakoan. Jautarkolen jaioterriak mendemugan eginiko omenaldia mamitzen ari garen honetan, uste dut egokiena dela haren poema nagusienetako bat aipatzea, hain zuzen bere jaioterriari eskainia: 'Errenderi, nere jaioterriari', izenekoa (B 46-48). Sentipen nobleen dardara daraman gorazarrea.

Errenteria, nere aurtzaro zorioneko
 seaska kutun-beroa:
 nere barrendik biotza igeska gaur zuregana
 pozez urturik dijoa.

Pozez urturik bertsoz jantzita egan dijoa
zuri agur-egitera:
pozaren pozaz bidezkarria jaioterrira
itzuli oi-dan antzera.

Aspaldi ontan, ostu igar baten antzera, Jaunak
Zugandik urrun narama:
baña ni zutaz aztu baño len, bere semeaz
aztuko litzake ama.

Aurra nintzala, zuri begira, oartu nitun
bertsoetako gogoak:
argatik beti, lotan zaudela, kanta oi ditut
zu zaintzen bere bertsoak.

Umetandikan biotz-erdian irrarita antxe
daramat zure irudia,
nekin jaio ta nekin ilko dan oroigai kutun,
irudi ilezkor-garbia.

Atoz, begira nigan dirdiraz dagoen zure
irudi eder-sorgiña,
ama langile, beti gaztea, pitxi polita,
Oinarsoko erregina.

Lanean ekin. Zure erraietan bizmen berriak
jarriko dizkitzu lanak,
ta zure sabel zarretik, berriz jaioko dira
seme ospetsu laztanak.

Ekin lanean. Baña otoitzez lana igurtzita,
bidali zuzen Zerura...
izan betiro Eliz-Amaren zaitzalle zintzo,
fededun euskaldun ura.

Arren, ez aztu, maitasun-musu baten antzera,
irrarita bekokian,
guraso zarrak utzi zizuten beren izkuntzaz
beren eriotz-aldian.

Izkuntza ori zurea da-ta, zure koroiko
pitxi bikaña dezu-ta:
zure obenez bera iltzen bada, betiko dezu
zure izen ona galduta.

Ara, an arrizko esi-gañean ego-zabalik
zur'aingeru zaintzallea.
Andik ezpata dirdiratsuz adi-erazten
jo bear dezun bidea.

Erri maitea...! Piztu, ba, piztu zure barruan
 itxaropenaren sua...
 Ez ote dezu, antxen urruti ekusten zure
 izar onaren kiñua?

Aurrera beti! Matxin, Isasti, Zabalbide ta
 Ugarte'n ama lerdena...
 Oraindik ez da zugan agortu Tripoli eta
 Oran'go zure kemena:
 oraindik badu seme argiak egin-azteko
 zure sabelak almena...
 Izan, ba, laister Gipuzkoako koroï-gañeko
 pitxi dirdiratsuená' (B 46-48)

Iruzkín laburra: Adierazpen modura, eta osotasun-asmorik gabe, zehaztasun hauek egin daitezke argigarri.

a) Bertso-lerro luzeenak 15- / 8a ereduak hain zuzen, xehetasunak ugaritzera darama. Baina hor azaltzen da Jautarkolen esku ona, betelanaren sentiaziorik utzi gabe. Adibidez: 'Pozez urturik bertsoez jantzita'; edota beste hau: 'Aspaldi ontan, osto igar baten antzera, Jaunak narama'; 'Atoz, begira nigan dirdiraz dagoen zure irudia'; 'Ara an arrizko esi-gañean ego-zabalik...' (Mikel Aingerua).

b) Adjektibo geminatuak: 'kutun-beroa', irudi 'ilezko-garbia', 'eder-sorgiña'; 'ama langile beti gaztea'...

c) Metaforak: Erreterria: nere aurtzaro zorioneko seaska; oroigai kutun; lotan zaudela; ama langile; Oïarsoko erregiña; izkuntza... zure koroïko pitxi bikaña; jo bear dezun bidea; Itxaropenaren sua; izar onaren kiñua; ama lerdena; zure sabelak almena; Gipuzkoako koroï gañeko pitxi dirdiratsuená (Pitxi irudia hiru aldiz darabil: bitan Erreterriari eskainiz "pitxi polita" eta "pitxi dirdiratsuená"; eta bat euskarari: "pitxi bikaña").

d) Konparaketak: Erreterria agurtzera doa, 'bidezkarria jaioterrira itzuli oi dan antzera' ... 'Jaunak zugandik urrun narama osto igar baten antzera'; 'ni zutaz aztu baño len(ago) bere semeaz aztuko litzake ama'; izkuntza 'maitasun musu baten antzera'.

e) Aita Damaso Intzak eginiko oharra ere aipa daiteke hemen, "Jautarkol" aztertzean. Eta zera da: "Bakanetan bada ere, laburpen bat edo beste eman ten diela itzei, baño izketan ere noiz-nai egiten direnak"... Eta Sabino Aranek onartzen ez baditu ere, hala egiten omen zuten olerkari zaharrek, eta Oxobik eta Barbier-ek, 'gure liburu onek (*Biozkadak*) dakazkien laburpen berdín-berdínak dagitzela berak ere' (B XV).

Testu azterketa luzatu eta sakondu zitekeen, eta hala egin behar gainera ezer zehatza eta tinkoa lortuko bada poeta baten ezagupenerako. Baina Jautar-

kolen olerkigintzaren bideo bat ez bada ere, eman duguna, zerbait lagun dezakete txaplasta eta argazki moduko zehazketa hauek. Zuzeneko irudiak dira, Jautarkolen olerki-aurpegia eta poeta-irudia ezagutzeko baliagarriak. Norbaitek eskainiko ahal dio ikaskuntza tajuzkorik, Luis Jauregi beraren ohoretan eta eskal poesia garaikidearen ezagutzarako.

6. IKUSPEGI OROKORRA

Olerki idilikoak egin bazituen ere gehienak, orientagarri izan daiteke aipatzea, saritutakoan artean ez dagoela kondaira idiliko bat bakarrik ere; eta badirudi horiek ez zutela lotura sendorik sariemaile ziren aldizkarietako helburu poetikoekin. Esan daiteke, onarpen beteagoa izan zutela, bai alegoria idilikoek eta bai odek, honekin erakutsiz gai melaskak ez zituztela orduan gogoko, indartsuak eta esanahitsuak baizik.

Uste dut ez daitekeela Luis Jauregi beti bigunkerietan dabilen poetatzat hartu. Badaki aurpegi latzagoa ere agertzen. Jesuitekin Comillas-ko seminarioan ikasketak egina genuen; eta gauza jakina da, literatura arloan prestakuntza hobe zutela hango ikasleek hemengo beste apaiz-ikasleek baino. Eta handik ekarritako joerak aurrerapausu bat izan zirela hemengo poetikan. Eredu idilikoetan Verdaguer eta Rabindranath Tagore-ren ahogozoa zekarren. Eta odetan, berriz, Fray Luis de Leon eta G. A. Becquer-ena, gero Lizardiren eskutik garatuko zen gustamolde burutsuagoa eta latzagoa. Eta bigarren alde hau da, hain zuzen, Jauregiri garaikideek saritu ziotena eta eredutzat hartu.

Bestalde, estrofagintzan maisua dela aitortu behar Jautarkol, garaiko zantzak eta frogaketak bere gain hartu zituelarik. Estrofismo ohikoaren eta gaurko poesia librearen artean dabil, diskurtsu poetiko askeagoa lortu nahiz, eta teorikoki modulo berriagoak eta egokiagoak asmatzen saiatuz. Aipagarri honetan Jauregik, beste poeta jakinekin batean, eginiko lana.

Kontaera xume eta hunkigarrien inguru eihotako pieza txikietan erabili ohi ditu ohiko baliabide poetikoak, zeinetan nabarmentzen baitzaizkio honelatsuko dohaiak: deskripzioak egiteko maisutasuna, hizkera afektiboa markatzeko baliabideak, denboraren tratamentua, pertsonifikazioak, erretorika bere oihu-esaldi eta galdera-ikurrekin, besteak beste... Eta, gaur egun onartezinago gertatzen zaiguna sentiberatasun bigunak eta moralitate kolektibo eta hertsia go baten is-pilatze jarraikia.

Odetan, alegorietan eta kantuetan ditu bere poemarik sarituenak, garaikoen eta gaurkoen ahogozorako eskuarki onartuenak. Aberatsa, zehatza eta egokia deskripzioetan, irudien erabilkera asko landuz metaforetan, konparaketetan, baina hala ere beti arrazoiaren bideetatik. Formazioduna literatura gaitan, bere ideiak asimilaturik dituen, kritikagintza ere lantzeraino. Garaikideen giroan bizi zenez, nabari zaizkio pentsamolde antropologikoak, ñabardura esistentzia-

lak (zentzu zabalean eta garaiko sentiberatasun inguragarriaren arabera), euskarak eta euskal kulturak hartzen dutelarik lekurik aukeratuena, Jauregiren pentsamoldean. Baina agian, pentsakeran eta sentikeran legoke alderdirik zailena, bateago onar dadin Jautarkolen poesigintza xumeen hura.

Bai *Biozkadak* eta bai Jauregiren antzindaritzza euskal poesian, beste olerkariekin batera, mende honetako hogeigarren hamarkadan jartzen dira, batez ere 'Euskal-Esnaleak' aldizkariak biztutako giroan. Hausten du lore-jokoetako poesigintzarekin eta prestatzen du Aitzolen proiektu kulturala, Gregorio Mujikak bultzatutako poetek ere sustatu zutena, Luis Jauregi barne, honek ger-rondoan ere jarraitzen duelarik bere poesigintzan. 'Olerti Eguna' edituriko poesiaren aurre-ikusle izan zen, eta mugimentua bukatu zenean, oraindik aurrera jarraitu zuena.

Nire azken hitzak Jautarkolek bere 'Aizkorri-ren oñetan' izeneko poeman, Jose Ariztimuño 'Aitzol'-i eskainitako hartan, dauden bertsoak aipatuz, gauzatuko dira. Ez dadila gerta gaur, Jauregik bere aipatu poeman poetaren oroitzapenez dioena:

... 'Laister bertso ta bertsolaria
bota dituzte il obira...
t'orduan emen izan naizenik, zenbat euskaldun,
zenbat oroituko dira?' (B 58)

Gaur oroitzen dugu Jautarkol, merezi duelako horrelako aipamen ohorezko bat, batez ere bere jaioterrian eta bere mendemugan. Baina oroitzen dugu geure mesedetan eta geure ikasbiderako, horrela egin izan delako gure historia poetikoa: ona nahiz txarra, baina gurea. Ez dugu besterik atzera begiratu-ta. Eta atera behar diogu herri bezala ateratzea dagokigun etekina. Ez dago beste biderik euskal poesia landuko bada: Jautarkol bezalako poetak aintzat hartzea, begirunez hartu ere.